



Aita Santuaren Misio Ekintzak
Obras Misionales Pontificias



IZAR-EREILE



Izar-ereile jardueraren bidez, Jainkoaren Semearen jaiotzaren iragarpenarekin, benetako sena itzuliko diegu Gabonei:

“Jesus zuretzat jaiotzen da”.

Ezinbestekoa da ausardia hori esaten jarraitzeko, gaur egun, askotan, lotsatu egiten gara-eta jendaurrean esateaz. Seguruenik izartxoak, askori, bihotza ukituko dio.

Jarduera honen helburua, sinplea da: Gabonak zoriondu pertsona guzti-guztiei, salbuespenik gabe, trukean ez dirurik ez ezer eskatu gabe. **Jesus gure artean jaioko dela gogoraraztea**, horra hor helburu bakun bezain garrantzitsua.

Honetan datza jarduera: ahalik eta haur gehien bildu (familiek ere parte har dezakete), hiri edo herriko kaleetara atera eta gabon-kantak abestu. Oinezkoei pegatinak banatu eta jaiak zoriondu.

Atera kalera, zabaldu berri ona eta oparitu izarra ingurukoei. Gogoratu garrantzitsuena: “Jesus zuretzat jaiotzen da”.

Eskulana proposatu nahi dizugu, izarrak inoiz baino misiolariago izan daitezen: misio-koloreez baliatu izarra egiteko. Ikusi bideoa QR kode honetan nola egin ikasteko. Horrela, izar hau bost kontinenteetako haur guztien sinbolo bihurtu daiteke. Gabon-aldi osoan izan dezakegu izarra gurekin.

Ondoren, izar-ereile ospakizunerako gidoia azalduko da.

OSPAKIZUNERAKO GIDOIA

AGURRA

Bila aritu eta askan etzandako Haurraren aurkitu duzuen Jauna, zuekin.

Gabonak JESUS zentzun betea ematen dien izen bakarraz betetzeko bildu gara hemen. Eta Jesus zuretzat jaiotzen da, pertsona guztientzat jaiotzen da. Zorioneko zara ezagutu egin duzulako, zeure burua Hari abegi egiteko prestatu duzu, bihotza ireki diozu eta orain ospakizunera etorri zara





besteei eman nahi diezulako. Zeinu txiki eta esanguratsua egingo dugu. Ez duzu hitz egin beharrik, baina bai irribarre; ez duzu trukean ezer eskatuko, baina bai maitasuna eman... Jesus jaio egingo dela iragartzeko prest zaude?

Ozen esango dute: Bai!



IRAKURGAIA (MT 2, 9-12)

"[Magoak] erregearen hitz hauek entzunik, abiatu egin ziren. Bidean, sortaldean ikusitako izarra agertu zitzaien eta biziki poztu ziren. Izarra aurretik joan zitzaien, haurra zegoen toki gainean gelditu arte. Etxean sarturik, haurra ikusi zuten Maria bere amarekin eta, ahuspezturik, gurtu; ondoren, beren kutxatilak zabalduz, esku-erakutsiak eskaini zizkioten: urrea, intsentsua eta mirra. Gero, Herodesengana ez itzultzeko oharra ametsetan harturik, beste bide batetik itzuli ziren beren herrialdera".

BIDALKETA

Haur maiteok: ez goaz bakarrik "abentura" handi honetara. Elizaren eskutik eta Elizak bidalita goaz. Bidalketa egitean, berri ditzagun egun hauetako "baietak", misiolari izatera ausartzen garela adieraziz:

("Bai" erantzungo da; gero eta ozenago egin daiteke).

Prest zaude bideari lotu eta Jesusen bila joateko?

Prest zaude traba egiten dizuna alde batera utzi eta Jesus aurkitzeko?

Prest zaude Jesusen etorrera hots egiteko?

Jainkoaren izenean bedeinkatzen zaituztet (+), Jesusen izenean bidaltzen zaituztet eta Elizaren izenean lagun egingo dizuet.

